

## Klaustrorako jarduera prestatzeko gida

### "Munduan, nonbait..." elkartasun kanpainaren aurkezpen jarduera:

#### Jardueraren helburuak:

1. Itaka-Escolapios-en "Munduan, nonbait..." elkartasun kanpaina aurkeztea eta irakasleei azaltzea, etapa bakoitzak sakonduko dituen proiektuen azalpenekin batera.
2. Talde-hausnarketa sustatzea, gure lanak ingurunea nola aldatzen eta hobetzen laguntzen duen aztertuz.
3. Aurreko kanpaina egindako ekintzak gogoraraztea eta ebaluatzea, eta ingurunea eraldatzeko gaur egungo beste ekintza batzuen inguruko gogoeta egitea.
4. Komunitate eta talde-lan sentimendua eraikitzea.
5. [www.educa.itakaescolapios.org](http://www.educa.itakaescolapios.org) webgunea gizartea eraldatzeko tresna gisa aurkeztea.

Iraupena: ordu 1

#### Beharrezko materialak:

1. Irakasle talde bakoitzarentzako bihotz formako puzzle piezak. Etapa bakoitzari berea dagokio:
  1. 3-7 urte
  2. 8-10 urte
  3. 10-12 urte
  4. 13- 15 urte bitartean
  5. 16- 18 urte
2. Itaka-Escolapios-en proiektuen fitxak (educa webgunean eskuragarri)
3. Kanpainaren promozio bideoa eta Educaren webgunea erakusteko proiektorea eta ordenagailua.
4. Jarduera egiteko eta puzzle piezak jartzeko espazio zabala.
5. Papera, arkatzak, errotulagailuak, guraizeak, kola...

#### Jardueraren arduradunarentzako jarraibideak:

1. **Materialak eta espazioak prestatzea (jarduera baino 30 minutu lehenago):**
  - Ziurtatu puzzle pieza guztiak eta azalpen fitxak prest eta adinen arabera antolatuta daudela.
  - Jarduerarako espazioa prestatu, talde bakoitzak mahaiak, aulkiak eta puzzle piezak jartzeko lekua dutela ziurtatuz.
  - Ordenagailua eta proiektorea probatu, bideoa eta webgunea arazorik gabe erakutsi ahal izango direla ziurtatzeko.
2. **Materialen banaketa eta proiektuaren azalpena (15 minutu):**
  - Irakasleei ongi etorria ematen zaie eta laburki azaldu saioaren helburua.

- Irakasle-talde bakoitzari puzzle pieza bat eta lan egiten duten etapari dagokion azalpen-fitxa emango zaio.
  - Fitxa irakurtzeko eta taldean komentatzeko eskatuko diegu.
3. **Taldean hausnartu eta puzzlearen pieza pertsonalizatu (15 minutu):**
- Taldeei egokitu zaien proiektuak bere inguru hurbila aldatu eta hobetzen duenaren inguruan eztabaidatzeko eskatuko diegu.
  - Puzzle piezaren alde batean ideia berritzaileak ere proposatzera animatuko ditugu, marrazki, argazki, testu...-en bitartez.
4. **Gogoratu eta hausnartu aurreko kanpainaren inguruan (15 minutu):**
- Aurreko kanpainan aurrera eramán ziren ekintzak gogoratzeko eskatuko diegu. Honekin batera gogoeta egin dezatela beren ikasgeletan, gaur egun gure inguru modu positiboan aldatzen ari diren beste ekimen batzuen inguruan.
  - Gogoeta hauek puzzlearen piezaren beste aldean adierazteko eskatuko diegu, marrazkien, argazkien, testuen... bidez.
5. **Hausnarketak eta bihotzaren eraikuntza partekatzen ditugu (10 minutu):**
- Taldeei gonbidatuko diegu ateratako gogoetak gainerako irakasleekin partekatzera.
  - Talde guztien puzzle piezak lotuz, elkarrekin bihotz bat osatzen dutela ikusiko dugu. Bihotz hori guztion lanak elkartzean bakarrik lortu dezakegu, eta bakarrik guztiak lotu ondoren emango ditu lehen taupadak.
  - Hausnartu elkarrekin nola gure ekintza txikiak, beste batzuenekin batera, mundua kolorez bete eta aldatzen duten, eskolapio misioaren bihotzaren taupadei bizia emanez.
6. **"Munduan, nonbait..." kanpainaren bideoa ikusi (5 minutu):**
- Kanpainaren promozio-bideoa erakutsiko diegu eta bideoaren esanahiak eta aurreko ekintzak duten loturaren inguruko hausnarketa motz bat egin dezakezue.
  - Bideoa Educa webgunean duzue.
7. **Kanpainaren leloa eta metodologia (5 minutu):**
- "Munduan, nonbait..." kanpainaren leloa aurkeztu eta Itaka Escolapios webgunera sartzeko pausoak azaldu, irakasleak sartu daitezzen.
  - Etapa bakoitzak Ikaskuntza eta Zerbitzu (IeZ) proiektu proposamen bat izango duela azalduko dugu. Proiektu hauetako bakoitzean Itaka Escolapiosek aurrera eramaten duen proiekturen bat ezagutuko dute ikasleek. Jarduera guzti hauek Educa webgunean zehaztuta dituztela azalduko diegu. Ikasgelaren batean ez balitz posible izango IeZ proiektua aurrera eramatea, etapa guztietako fitxetan (bukaeran) lan hau modu sinpleago batean nola egin dezakegun azaltzen zaiela esplikatuko diegu.
8. **Itxiera eta Eskerrak (5 minutu):**
- Irakasleei eskerrak emango dizkiegu beraien parte hartze eta konpromisoagatik.
  - Bukatzeko, hitz bat esateko eskatuko diegu, aurkezpen honetatik eramaten duten emozio, sentsazio edo gogoeta laburbiltzen duena.